


BALIO PROPOSAMENA

Guk Pill-Mind, pilula-ontzi adimenduna eskaintzen diegu herritar adineko pertsoeni. Haien zailtasun bat pilulak ahaztea edo hartu behar zutena ahaztea da, horretarako gaude, gure produktuarekin beren fitxa medikoa eskaneatu ahal izango dute, hartu behar dituzten pilulak izango dituztelarik eta informazio hori eskaneatu ondoren pilula-ontzi adimentsuan gordeta geratuko da.



Zer funtzio eskaintzen du zehazki? Izan ere, pilula-ontzia soinu batekin abisatuko dio pilulak hartu behar dituenean, eta, horrela, pilula horrek zein den, prokuktuan sartutako pantailan adieraziko dio, informazio gehigarriren batekin, hala nola, astean zenbat aldiz hartu behar duen pilula hori, zertarako hartzen duen, eta abar.

Lehen esan dugun bezala, gure produktuak pantaila bat izango du, informazio gehiago emango dizun pantaila bat, informazio hori zure gailuan ere izan baitezakezu, zure gailuaren osasun-aplikazioari esker. Blueetoo bidezko pastilla-ontzia konfiguratu ahal izango duzu, eta ateratzen zaizun informazio guztia zure aplikazioan ere izango duzu. Adin handiko jendearentzat denez, erosi den dendan konfiguratu ahal izango dute, denda horrek jarraibideen eskuliburu bat izango baitu. Pastilla-ontzia online erosten bada, telefono bidez lagunduko zaie, baina gure bezeroak zailtasunak baditu, farmazia bat bisitatu ahal izango du laguntza emateko.

Produktu hori hainbat lekutan aurki daiteke, hala nola farmazietan, baina, batez ere, pilula-ontziaren tamaina guztiak dituen gure web-orrian.

Gure produktuak gainera, garapen jasangarrirako hirugarren eta hamabigarren helburuekin bat egiten du, hau da, osasun eta ongizatean laguntzen du eta baita kontsumo arduratsu bat sustatzen du.



Gure enpresa Euskadin hasiko litzateke, baina pixkanaka-pixkanaka gustatuko litzaiguke penintsula osoan zehar egoitzak izatea, gure produktuak beharra daukan jende gehiagorengana hurbiltzeko edota gure proiektuarekin lotutako arazoak dituztenei lagundu ahal izateko. Hau da, Pill-Mind Bilbon hasiko dugun proiektua berria izango da, eta, ondoren, hirian zehar handitzea gustatuko litzaiguke, denda fisikoren bat edo beste izatera iritsiz, Euskadin zehar handitu nahiko baikenuke, adibidez, Gipuzkoara edota Arabara helduz. Ondoren, penintsulan zehar hedatzea gustatuko litzaiguke gara, hau da, iparraldetik hasiz, Asturiastik edo Santanderretik, hurbilen dagoena baita. Gure helburua gure egoitza nagusia Madrilen irekitzea da, hornitzaileak bertan ditugulako, eta gure bezeroek eta irabaziek estadistikoki gorantz egingo dutelako.